

EUSKERAZALEAK

"IGANDERO" DEIA'KO ORRIALDE BARRIA

IRAKURLEAK BEAR

Aspaldion diardugu esan eta esan, euskeraz idatzi zerbait idazten dala, baiña irakurleak urri ditugula.

Eta zelan lortu irakurteko guraria?

Bide bat, euskera erreza ta errikoa erabiltea da. Olako euskereak irakurteko gogoia sortzen dau. Ez da olakoa gaurko izpirringietan erabilten dan euskerea.

IGANDERO

Olako azterpenetan giarduala, ona emen uste-uste barik, non agertu jakun DEIA'n IGANDERO orrialdea.

Oraingo, itzak berak diñoanez, astean bein eta igandeetan agertuko da eta askotari-ko gaiak erabiliko ditu.

Jakiña, asteroko orrialdea danez, ezin emon daikez eguneroko barriak, baiña bai olako batzui buruz, erri-eritxiak.

* * *

ZELAKOA DAN

Orain arte agertu diran errialdeak elburu ori ederto bete dabe: Bizkai'ko euskerea eta erritarrak errez-errez irakurteko lakoa da.

Ez uste izan, orregaitiño, erritxueta berezitasunak euskera orretan agertzen diranik.

Norberaren euskerea apur bat landu ez dauanari aldatz-gora egingo jako, baiña euskeran abedetua dan edozeiñek ulertuko dau errez-errez.

Idazteko tankerea ta gaiak eurak be arin-ariñak dira eta poztasuna, irakurteko gogoia sortzeko eraz idatziak.

Zoriona ba Aita Fermin eta bere laguntzailleen taldearentzat olako aukera ederra eskiñi dautseñelako Bizkai'ko irakurle baztertuai.

* * *

GITXI DA

Egia esan, zerbait izan arren, gitxi da izparringian olako orrialde bat eta astean bein agertzea. Geiago, asko geiago gura dogu eta eskatzen dautsogu gure izparringiari.

Idazleak ba-dira, asko ta ugarriak, gure Bizkaia'n.

Aurrera ba, talde orrek ba-dauka almena-ta! Gaizkatu dagigun geure bizkaieria, eta beste barik gaizkatuko dogu euskerea.

OLAZAR'tar Martin'ek